

10

artikulua

ingurugiroa

LAUDIO

LURZORUAREN ERABILERA JASANGARRIA

XXII



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Zorua da, airea eta urarekin batera, lurreko ekosistemetan finkapena/kokapena lortu duen izakien bizimoduaren eta bilakaeraren oinarri naturala. Hori horrela izanik, natura baliabide oso hauskorra dugu, izaera oso mugatukoa eta berriztaezina. Zorua da pertsonen eta espezie natural ugariaren euskarri biologikoa: bere gainean garatzen diren prozezu fisiko-kimiko garrantzitsuak, ekosistema ezberdinak pausatuz eta finkatuz doaz, pertsonen bizimodua eta zeregin-jarduerak ere eta lehengai eta baliabide iturri dugu.

Hiri lurraren kasuan, giza populazioaren bizimoduko zatirik handiena gauzatzen den ekosistema edo habitata dugu.

Elementu natural legez oso nekez birsortu daitekeenez, zoruak arrisku ugari, mehatxu eta inpaktu ugari jaso ohi ditu. Zoru batzuk naturalak dira, baina beste zoru batzuk gizakiak sortutakoak dira.

Laudi moduko udal industrializatueta garrantzia izan duen arazoa lurzoruen kutsadura izan da, industriak sortutako kontrolik gabeko hondakin toxikoen isurketagaitik. Arazo hau agerian eta azaleratu dute industriaren krisia igaro ondoren, instalazioak itxi direnean eta horien lekuan hirigintza ezarpen berriak jarri behar izan direnean.

potentzialki kutsatutako lurzorua Laudion

Eusko Jaurlaritzaren menpeko IHOBE Ingurugirioaren Kudeaketarako Sozietate Publikoak 1998 urtean prestatu zuen "Laudioko Udalerrian Lurzoruen Jarduera Potentzialki Kutsagarrien Enplazamenduen Zerrenda" txostenean lortutako datuetan azaltzen da 112,96 hektareako lurzoru-azalera potentzialki kutsatuta daudela eta 51 enplazamendu detektatzen ditu degradazioaren iturburu izan daitezkeena, eta horietan 64 jarduera ezberdin gauzatzen ziren. Azalera hori udalerriri osoko % 2,9 da, portzentaje/ehuneko ez oso altua, EAEko beste udalerriri industrialekin parekatzen badugu, behintzat. Zoruak potentzialki kutsatutakoak izateak ez du esan nahi derrigorrez kutsatuta

daudenik errealitatean. Hori jakin ahal izango dugu, kutsatuta dauden ala ez, zoru horien ikerketa zehatza egin ostean.

Aipatutako leku guztietatik, gaur egun erabilera industrial soilaz aktiboki lanean daudenak 34 identifikatu dira eta ari direla, eta horietatik 9 lursail isurtegiak dira, 8 isurtegi lekuz aldatutakoak, 2 isurtegi legez agertzen dira eta gainerako 6 industriako jarduera legez. Karakterizazio horretatik ondoriozta daitekeenez, ez dago orubeen enplazamendu hutsik, arruinen edo jarduerarik gabeko industriaren kasuan legez.

Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Industria jarduerak eta hiriko sistemek lurzoruan sortzen duten ingurugiro aldetiko inpaktua gutxitzea.
- Kutsatutako lurzorua berreskuratzea eta birsortzea.

Laudioren Jasangarritasunerako ekintza plana




Laudion zer egin da?

Lurzoruaren jasangarritasunak zorua oreka egoera batean eduki behar dela, esan nahi du, halako moduz ezen erraztasuna izan dezan berezkoak dituen bere funtzio natural guztiak normaltasunez egin ditzan, kontuan izanik, erabilerako mugak, kutsatutako lurzoruen garbiketa lanei aurre eginik eta aurrerantzean izan ditzaketen arrisku potentzial eta inpaktu negatiboetara aurre hartzeko.

Laudion zer falta da egiteko?

Guzti horrekin bat eginik, Laudioko Ingurugiro Ekimen Planak, kutsatutako lurzoruen birsorkuntza sustapenari eskainitako atalean xedatzen du kutsatutako lurzoru horien kudeaketa garapen jasangarrirantz zuzendu egin behar dela, ondoren zehazten diren ekintzen bitartez:

- Hiri planeamenduan eta bere burutzapenean **"lurzoruaren kalitate" irizpideak ezartzea.**
- **Udalerriko lurzoru kutsatuetan lehentasuna ezarri EAEko Lurzoru Kutsatuen Berreskurapen Programa barruan sartu ahal izateko.**
- Benetan kutsatuta dauden **lurzoruen berreskurapena.**



Zerbait egiteke geratzen dela uste baduzu parte hartu, **Laudio denon arteko konpromisu bat.**

Hau da 13 artikuludun bildumaren hamaikagarren alea. Aleren bat ez badaukazu Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu. Udaletxeak aleak biltzeko karpeta eskeintzen ditu.